



**Arartekoaren 2021R-1757-19 Ebazpena, 2021eko azaroaren 3koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala ibilgailuak aparkatzearekin loturiko trafikoko arau-hauste batengatik ezarritako zehapen bat.**

### Aurrekariak

1. (...) Arartekoarengana jo zuen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jarri zion zigorrarekin ados ez zegoela adierazteko. Izan ere, (...) kaleko (...). zenbakian erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako erreserbaturiko erreie batean aparkatu zuen bere ibilgailua eta, horren ondorioz, Ertzaintzako agente batek salaketa jarri zion (...).

Bere kexan adierazi zuen bere ibilgailua ez zegoela aparkatuta erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako erreserbaturiko erreie batean, eta gaineratu zuen kale horretan ez dagoela horrelako erreirik, egokitutako aparkaleku bat baizik; eta hor zegoen hain zuzen ere ibilgailua salatua izan zen unean.

2. Dagokion eskaera egin ostean, Segurtasun Sailak kexan jasotako gogoeten inguruko txosten bat eta zehapen-prozeduraren administrazio-espeditentearen kopia bat bidali zion erakunde honi. Espediente horretan, laburbilduz, honako gertaera garrantzitsu hauek ikus daitezke:
  - Salaketa-buletinean, 2019ko maiatzaren 7an betea, 04:23an, honela definitzen zen salaturiko gertakaria: *“Vehículo estacionado en carril o parte de la vía reservados para la circulación”*. Eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) araua urratu zela gaineratzen zen. Buletin hori ez zen jakinarazi gertakariaren unean, ibilgailuaren titularra ez zegoelako bertan.
  - Pertsona horrek salaketa jakinarazteko dokumentu bat jaso zuen beranduago eta, bertan, honela deskribatzen zen arau-haustea: *“Erabiltzaile jakin batzuentzat gorderiko erreian aparkatzea”*; Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2 artikuluan xedatutakoari helduz.
  - Jarraian, pertsona horrek alegazioak aurkeztu zituen zehapen-espeditentea ondoriorik gabe utz zedila eskatzeko. Aipatu zuen, lehenik eta behin, antzeman zela salaketa-buletinean ageri zen gertakarien deskribapena eta jakinarazpenean ageri zena ez zetozeela bat. Horrez gain, adierazi zuen arau-haustearen toki gisa identifikaturiko kaleko zenbakiari dagokion lekua aparkaleku gisa zegoela egokituta, eta kale horretan ez zegoela erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbaturiko erreirik. Azkenik, salaketaren unean ibilgailua zegoen tokiaren argazki bat





aurkeztu zuen, zeinaren bidez baieztatu nahi izan baitzuen behar bezala aparkatu zuela; gune hori xede horretarako bideratua baitzegoen.

- Agente salatzaileak salaketa berretsi zuen; hala ere, bere alegazioei erantzuteko idazkian honako adierazpen hauek egin zituen: *“Tal y como está especificado en la denuncia, a dicho vehículo se le denuncia por infringir el artículo 94.2.a) de RGC cuyo concepto de infracción es “Estacionar en carril o parte de la vía reservado para la circulación o servicio de determinados usuarios”, en la denuncia queda bien claro y explícito que se le denuncia por estacionar en carril o parte de la vía reservado para la circulación, en ningún lugar pone “o servicio de determinados usuarios”. La fotografía que se adjunta (...) lo único que demuestra es que el vehículo está bien estacionado en el momento de sacarse la fotografía no en el momento que se redactó la denuncia.”*
  - Ibilgailuaren titularrak alegazio berriak egin zituen, eta horien bidez berriro adierazi zuen salaketa-buletinean jasotako gertakariak eta jakinarazitako salaketan jasotakoak ez zetozeela bat. Berriro adierazi zuen ibilgailua berariaz baimendutako leku batean aparkatuta egon zela, eta nabarmendu zuen ez dagoela erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako erreserbatutako erreirik. Hori dela eta, ibilgailua behar ez bezala aparkatzeko aukera bakarra bigarren ilaran edo ondoko pasabide batean aparkatzea izan zen. Inguruabar horiek ez ziren gertatu eta ez ziren salaketan jaso.
  - Zehapen-ebazpenak gertakarien deskribapena mantendu zuen jakinarazpen-dokumentuan *“Erabiltzaile jakin batzuentzat gorderiko erreian aparkatzea”*, eta honako arrazoi hau jaso zuen: *“Instrukzioa amaitu ondoren, eta (...) alegazioak eta bidezain salatzailearen txostena ikusita, salatutako gertakariak frogatutzat jotzen dira, 320/1994 EDren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.”*
  - Azkenik, salatutako pertsonak berraztertze errekurtso bat jarri zuen, eta horren bidez arestian aipaturiko jarrera berretsi zuen. Hala ere, errekurtso hori gaitzetsia izan zen, zehapenak hizpide zituen gertakariak agintaritzaren agenteen salaketan egiazkotasun-presuntzioaren babesean zeuden eta salatutako pertsonak ez zuen aurkeztu horren kontrako frogarik.
3. Arartekoak Segurtasun Sailera jo zuen deskribatutako aurrekarietan eta gai horretan aplikatzekoa den araudian oinarritutako zenbait iritzi helarazteko, eta, horren arabera, prozeduraren izapidetzea ez zela egokia izan ondoriozta zitekeela aurreratzeko.

Bere erantzunean, Segurtasun Sailak konklusio horren aurkako iritzia agertu eta zehapena berretsi zuen.





Bi dokumentuetan jasotako argudioak jarraian agertzen diren ataletan aztertuko dira, eta, beraz, ez dira une honetan zehaztuko.

### Gogoetak

1. Segurtasun Sailak zehapen-prozedura honetan garaturiko jarduketa justifikatzen du honako atal hauetan laburtzen diren arrazoietan.

1.1. Lehenik eta behin, adierazi du salaketa-buletinean erregistraturiko arau-haustea honako hau izan zela: *"ibilgailua "zirkulaziorako erreserbatutako erreietan edo bide-zatietan" aparkatzea (...), ZEOaren 94.2 a) artikulua (94.1 c) artikuluekin lotuta)." Nolanahi ere, gidaria ez zegoenez bertan, salaketa titularrari jakinarazi zitzaion "eta urratutako araua gisa ZEOaren 94.2 artikulua bera ezarri zen jakinarazpenean, holan idatzita: "Erabiltzaile jakin batzuentzako erreserbatutako erreian aparkatzea"."*

Horrez gain, honako hau gaineratu du: *"Agente salatzaileak (...) berretsi zuen salaketa, berriro esanez salaketaren arrazoa ZEOaren 94.2a) / 94.1 c) artikuluen arau-haustea izan zela."*

Eta azkenik, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.1.c) artikuluan adierazitakoa jaso du, hitzez hitz <sup>3</sup>: *"Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bakarrik gordetako erreietan edo bidezatietan aparkatzea".*

1.2. Txostenaren arabera, salaketa jarri zen agentea ohartu zenean ibilgailua zirkulaziorako errei batean aparkatuta zegoela, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) artikuluan aurreikusten baita arau-hauste hori —94.1.c) artikuluekin lotuta—. Hori horrela, artikulua horretan erabiltzaile guztien zirkulaziorako erreserbatutako erreian aparkatzea zein erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako errei batean aparkatzea jasotzen dira.

Sail horrentzat, arau-haustearen enuntziatuaren transkripzio partzialaren arabera, ez da prozeduraren akats baliogabetzaile bat, eta berriro dio arau-haustea behar bezala tipifikatuta zegoela; izan ere, arau-haustea bakarra da, artikulua horretan debekatu egiten baita zirkulazioko erreian aparkatzea, ibilgailu guztiek erabiltzera edo ibilgailu jakin batzuk bakarrik erabiltzera bideratuta egon gorabehera.

Ilido horretatik, baieztatu du salaketa-buletinean jasotako gertakariak eta osteko salaketaren jakinarazpen-dokumentuan jasotakoak ez daudela

<sup>3</sup> Trafiko, motor-ibilgailuen zirkulazio eta bideko segurtasunaren gaineko Legearen testu artikulatuaren aplikazio eta garapenerako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Erregelamendu hori azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartu zen.



kontraesanean, izan ere, adierazi duenez, *“erabiltzaile guztientzako” erreian aparkatzeagatiko arau-hausteak “erabiltzaile jakin batzuentzako” erreian aparkatzeari dagokiona hartuko luke.*”

1.3. Bestalde, salaketan enuntziatu osoa ez jasotzeak ez lioke kalterik eragingo salaturiko pertsonari, izan ere, *“hautsitako artikulua zehatza aipatzean, baita zehazki non gertatu zen ere, interesdunak ezin du zalantzarik izan salaketaren arrazoiari buruz: (...) kaleko (...). zenbakiaren parean dagoen zirkulaziorako erreian aparkatzea. Errei hori bidearen erabiltzaile guztiek (kasu honetan bezala) edo horietako talde jakin batek zirkulatzeko erabil daiteke.*”

Era berean, honako hau baieztatu du: *“Ibilgailua leku debekatuan zegoen aparkatuta, bideko erabiltzaileek zirkulatzeko erabil dezaten errei batean hain zuzen ere, erabiltzaile oro har (kasu honetan esate baterako), zein erabiltzaile-talde jakin bat; funtsezkoa dena: ibilgailu hori galarazten ari zen zirkulazioaren arintasun normala errei edo bide-zati zehatz horretan.*”

Eta hauxe gaineratu du: *“Hain zuzen ere, erreklamatzailerak berak zehapen-espeditera ekarritako argazkiek erakusten dutenez, zirkulaziorako errei bakarra dago (...) kaleko (...). zenbakiaren aurrean, eta horrek edozein zalantza argituko luke, salaketa jarri duen agentearen arabera, aparkatuta zegoen tokiaren/erreiaren inguruan. Azken finean, gakoa da ibilgailu horrek errei horretako zirkulazioaren arintasun normala eragozten ari zela.*”

1.4. Segurtasun Sailak, era berean, agente salatzailearen txostena aipatzen du, eta honako hau adierazten du txosten horren inguruan: *“argi eta garbi adierazi zuen hautsitako artikulua ZEOaren 94.2 a) / 94.1 c) dela; zehazki, “zirkulaziorako erreserbatutako erreian edo bidearen zati batean aparkatzeagatik, ez du inon jartzen «edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzua»”*

Honela, dokumentuak salaketaren zehaztapenak argitu zituen eta zehaztapen zehatzak ezagutzea eta zegozkion defentsa-baliabideak baliatzea ahalbidetu zion pertsona salatuari.

Gogoeta hori baieztatuta geratuko litzateke, administrazioaren ustez, zehatutako pertsonak jarritako berraztertze errekurtsoan ez zelako azpimarratzen deskribatutako gertakarien desadostasuna, eta beste kontu batzuetan ardatzen zelako: alde batetik, salaketan adierazitako lekuan aparkaleku gisa gaitutako plaza bat zegoela eta ibilgailua behar bezala aparkatuta zegoela ziurtatzean eta, bestetik, arau-haustea frogatzen zuen probaren bat aurkitzean.



1.5. Espedientera ekarritako proben balorazioari dagokionez, arlo horretako zehapen-prozeduraren erregelamenduko 14. artikuluan aurreikusitako agintaritzagenteek egindako salaketaren egiazkotasun-presuntzioa ezarri zen<sup>4</sup>.

Zehazki, Segurtasun Sailak honako hau adierazi du: *“Erreklamatzailerak espedientean sartutako argazkiek ez dute bere defentsarako balio; izan ere, esan bezala, ez dute ibilgailuaren egoera islatzen salaketaren unean. Eskatzaileak berak planteatzen ditu ibi batean edo bigarren ilaran ote zegoen jakiteko zalantzak, baina ezin dira mantendu, salaketa jarri zuen agenteak arau-haustea eta gertakarien tokia argi deskribatu zituelako. Errekurtsogileak behar bezala aparkatuta zegoela dioen alegazioa dela eta, salaketa eta salaketa jarri zuen agentearen txostena gailentzen dira; izan ere, horietan adierazten denez, ibilgailua ez zegoen aparkatuta argazkietan ageri diren gaitutako guneetan, baizik eta (...) kaleko (...). zenbakiaren aurretik doan zirkulazio-erreian.”*

1.6. Azkenik, Segurtasun Sailak adierazi du salaketaren akatsa ez dela espedientea baliogabetzea eragiteko bezain larria, kontuan hartuta prozedura-eskakizun guztiak jarraitu zirela, zehapen-ahala baliatzeari dagozkion bermeak errespetatu zirela eta ez zela babesgabetasunik egon.

2. Bestalde, kexa-espedientean jasotzen den dokumentazioa eta administrazioak bere jarduketaren oinarri gisa helarazitako argudioak aztertu ostean, Arartekoak honako balorazio hau egin du:

2.1. Zehapen-prozedura honen hasieran dagoen salaketa-buletinean honela deskribatu ziren gertakariak: *“Vehículo estacionado en carril o parte de la vía reservados para la circulación”*; eta erabaki zuen Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) artikulua urratu zela.

Bestalde, salaketaren jakinarazpen-dokumentuan honela definitu ziren gertakariak: *“Erabiltzaile jakin batzuentzat gorderiko erreian aparkatzea”*. Eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2 artikuluekin lotu zuen arau-haustea.

Ez bi dokumentu horiek ez agentearen berrespen-txostenak ez zuten zehaztu urratutako artikulua gisa Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.1.c) artikulua; arau horretako 94.2 artikulua besterik ez zuten aipatu, eta horrek ez du uzten modu espezifikoan zehazten salaturiko gertakariak, izan ere, honela dio hitzez hitz:

*Debekatuta dago honako kasuetan aparkatzea:*

*a) Aurreko paragrafoan azaldutako kasu guztietan, gelditzea debekatuta dagoen moduan.*

---

<sup>4</sup> Otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua, zeinaren bitartez onetsi baitzen trafikoarekin, motordun ibilgailuen zirkulazioarekin eta bideko segurtasunarekin lotutako zehapen-prozedura.



2.2. Baina, horrez gain, eta edonola ere, bi deskribapenen irakurketak agerian uzten du argi eta garbi ez datozela bat agenteak salaketa-buletina formalizatzean salaturiko gertakariak eta salaketa-jakinazpenaren dokumentuan eta osteko zehapenean jakinarazitakoak; izan ere, lehenengoak zirkulazio-errei batean aparkatu zela aipatzen bazuen ere, beste bi dokumentuetan bidearen erabiltzaile guztientzat bideratuta ez zegoen eta pertsona jakin batzuen erabilerarako bideratuta zegoen errei batean aparkatu zela jasotzen zen.

Hala, argi dago prozedura abiaraztea eragin zuen gertakariak eta osteko zehapenak ez zutela jatorrizko buletinaren eduki bera, buletinaren aurka baitzihoazen, agente salatzaileak bere berrespenean zehazten zuen bezala. Hain zuzen ere, agente salatzailearen arabera, salaketa arrazoi honengatik egin zen: *“por infringir el artículo 94.2 a) de RGC cuyo concepto de infracción es “Estacionar en carril o parte de la vía reservado para la circulación o servicio de determinados usuarios”*”. Baina jarraian honako hau azaltzen du: *“en la denuncia queda bien claro y explícito que se le denuncia por estacionar en carril o parte de la vía reservado para la circulación, en ningún lugar pone “o servicio de determinados usuarios”*”.

2.3. Erakunde honek uste du desadostasun hori ezin dela gainditu erabilera orokorreko errei batean aparkatzeko debekuak erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako errei batean aparkatzeko debekua barne hartzen duela ulertuta, izan ere, ezaugarri oso desberdinak dituzten zirkulazio-guneak dira eta arauak berak bereizi dituen egoerak desberdinak dira.

Adierazi beharra dago, gainera, pertsona hori ez zutela zehatu bietako jokabide generikoengatik (zirkulazio-errei batean aparkatzea), espezifikogatik baizik (erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako errei batean aparkatzea); hortaz, gure ustez, ezin da ondorioztatu salaturiko gertakaria (erreian edo zirkulaziorako erreserbatutako bidearen zati batean aparkatzea) zehatutakoan barne hartzen denik (erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako errei batean aparkatzea).

2.4. Gertakari hori, Segurtasun Sailaren arabera akats txiki bat dena eta beraz ez duena eragin behar jarduketan baliogabetasuna, substantzial gisa erakusten da erakunde honen iritziz; salaturiko gertakaria eta zehatutakoa desberdinak baitira. Horrez gain, ibilgailua aparkatuta zegoen toki zehatzari dagokionez, zentzuzko zalantza bat adierazten du.

Eta zalantza hori ez da antzematen une honetan bakarrik, espedientea amaitu denean; aitzitik, bere ondorioak akatsa gauzatu zeneko izapide berean proiektatu baitzituen, izan ere, alegazioak egitera behartu zuen salaturiko pertsona eta izaera kontraesankorreko gertakariaren definizio bikoitzari egin behar izan zion aurre: agenteak eskuz idatzitako buletinaren arabera ibilgailua zirkulaziorako erreserbatutako errei baten edo bide-zatian aparkatuta zegoelako salatu zen, baina salaketaren jakinarazpen-dokumentuan erabiltzaile jakin





batzuentzako erreserbatutako leku batean (eta ez zirkulazio orokorrera bideratutako toki batean) aparkatuta zegoelako salatu zela jakinarazten zen.

Gertakarien arteko desberdintasuna salaturiko pertsonak azaldu zuen prozeduran zehar, eta adierazi zuen salaketaren kontra zegoela eta azaldu zuen aparkalekura bideratutako toki batean aparkatuta zegoela bere ibilgailua.

Ez zen oposizio erretoriko hutsa, zehapen-prozedura bera sostengatzen zuten elementuen balorazio material eta juridikotik abiatzen zen. Kexagilearen ustez, elementu horiek agerian uzten zuten prozedura ez zela zuzena.

Arestian aipatu den bezala, pertsona horrek adierazten zuen bere ibilgailua behar bezala aparkatuta zegoela horretarako bideratutako lekuan, (...) kaleko (...). zenbakian, salaketan adierazitako kaleko zenbakian hain zuzen ere, eta horrela, gertakarien deskribapenen desadostasuna aipatu ostean, bere alegazio-idazkiak honako hau zehazten zuen: *“se cita como lugar del hecho el número (...) de la calle (...), cuando dicho espacio está acondicionado como aparcamiento, no existiendo en dicha calle ningún carril reservado para determinados usuarios.”*

Horrez gain, esandakoa egiaztatzen saiatu zen, eta horretarako, kexagilearen arabera ibilgailua aparkatuta zegoen tokiaren argazki bat aurkeztu zuen.

Horren ostean, salaturiko agentearen berresteko txostena aurkeztu ostean egin zituen alegazioetan, azpimarratu zuen, era berean, definitu gabe geratu zela zehapen-prozeduraren arabera ibilgailua zegoen tokia, eta zehaztu zuen aurkeztu zuen argazkiaren xedea zela egiaztatzea salaketaren tokian baimenduta zegoela aparkatzea eta ez zegoela erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako erreserbatutako erreirik. Azkenik, hau esanez amaitu zuen: *“la única posibilidad de haber estacionado indebidamente en dicho lugar hubiese sido haber aparcado en doble fila o en el vado de salida de vehículos contiguo, cosa que no hice y que tampoco quedan reflejados dichos hechos ni en el boletín de denuncia ni en la notificación de la misma certificada”.*

Argudiaketa hori guztia gaitzetsia izan zen salaketaren egiazkotasun-presuntzioa oinarri hartuta eta kontuan izanda agente salatzailearen berresteko dokumentua, zeinaren bidez, hala ere, ziurtatzen baitzen, hain zuzen ere, buletinean adierazi zuela ibilgailua zirkulaziorako erreserbatutako erreiri batean edo bide-zatian aparkatuta zegoela, eta ez erabiltzaile jakin batzuen erabilerarako bideratutako gunen batean. Argazkia baztertu egin zen ez zelako atara salaketaren unean.

Erakundearen ustez, zehapen-prozeduran zehatutako arau-haustearen funtsezko elementuak justifikatzea eta sor zitekeen edozein zalantza ezabatzea ahalbidetzen duen informazio zehatza jaso behar da; hortaz, ukitutako pertsonen alegazioak aztertu egin behar dira eta beren-beregi ebatzi behar dira, modu arrazoituan, eta horretarako, beharrezko eginbideak burutu behar dira.







Ezin da ahaztu arestian aipaturiko zehapen-prozeduraren erregelamenduko 14. artikulua, trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritza-agenteen salaketak frogatzeaz arduratzeaz gain, salaturiko gertakariaren inguruan egon daitezkeen elementu frogagarri guztiak aurkezteko betebeharra ere jasotzen duela, eta araudi horrek, era berean, gertakariak argitu eta kalifikatzera edo balizko erantzukizunak zehaztera bideratutako frogaldi bat irekitzea aurreikusten duela.

Kexa hori ekarri zuen kasuan, kontuan hartuta adierazitako inguruabarrak eta zehatu daitezkeen jarreraren deskribapenean egindako akatsarengatik sorturiko nahasmendua, jarduketa hori, hortaz, behar-beharrezko bihurtu da.

Nolanahi ere, eta azkenean zehapena jarri bazen ere (arrazoi honengatik: *“Erabiltzaile jakin batzuentzat gorderiko erreian aparkatzea”*), egia da prozeduraren baitan ez zela eskaini agerian jarritako desadostasunaren inguruko azalpenik. Era berean, ez zehapenaren ebazpenak ez berraztertzeo errekurtsioa gaitzetsi zuen ebazpenak ez zuten eskaini alegazioen inguruko balorazorik; arestian aipaturiko egiazkotasun-presuntzioa ezarri besterik ez zuten egin, eta alde batera utzi zituzten agente salatzaileak gertakariaren inguruan egin zituen adierazpenak zein salaturiko pertsonak erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako erreserbatutako gunerik ezaren inguruan egin zituen adierazpenak.

Bestalde, era berean, zehapen-prozedura osoan zehar ez zen egin eginbide edo jarduketarik pertsona horrek ibilgailua aparkatuta zegoen tokiaren inguruan (bere ustez, horretarako gaituriko leku batean), kalearen konfigurazioaren inguruan (adierazten duenez, salaketaren tokian ez dago zehapenean justifikatzen zenaren bezalako gunerik), edo oker aparkatzea eragin zezaketen egoeren inguruan (bigarren ilaran edo irteera-pasabidea) behin baino gehiagotan egin zituen adierazpenen harira.

Bere jarrera defendatzeko aurkeztu zuen frogari dagokionez, agerikoa bazen ere argazkia ez zela hartu salaketaren unean, beranduago baizik, eta alde batera utzita pertsona horrek azaldu zuela kasu honen kanpoko arrazoiek eraginda harrezkero ez zuela ibilgailua mugitu, egia da elementu kontraesankorra zela salaketa egin zenean ibilgailua aparkatuta zegoen tokiari dagokionez.

Hain zuzen ere, argazki horretan erakusten da ez dagoela baimendutako aparkalekurik eta zirkulazio-errei bakarra, baina ez da antzematen bertan ez dagoenik erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako erreirik; hortaz, Segurtasun Sailaren txostenean adierazitakoaren kontra, ezin dira argitu ibilgailua aparkatuta zegoen tokiaren inguruko zalantzarik. Inguruabar horiek ez ziren kontuan hartu eta ez zen egin horiek argitzea ahalbidetuko lukeen esku-hartzerik.







Azken batean, prozedurak ez du beste elementu frogagarririk, agente salatzaileak berak salaketa-buletinean jaso zituen gertakarien inguruko berrespenetik harago.

Nolanahi ere, egia esan, esku-hartzea amaitu arren, ezin izan da zehaztu zein zen salaturiko ibilgailua aparkatuta zegoen kaleko tokia salaketa egin zen unean: zirkulazio-erreian zegoen, kexagileak adierazitako eta argazkian jasotako tokian, pasabide bat oztopatzen zuen edo bigarren ilaran zegoen, edo zehaztu ez den beste toki batean zegoen.

2.5. Azkenik, erakunde honek azpimarratu nahi du arestian aipaturiko egiazkotasun-presuntzioak ondorio frogagarriak izan ahalko lituzkeela agenteak salaturiko gertakariari dagokionez, baina ez salaturiko gertakariari dagokionez; izan ere, behin baino gehiagotan adierazi den bezala, gertakari horiek desberdinak dira.

2.6. Horren ondorioz, Arartekoak uste du kexa honek hizpide duen zehapen-prozedura ez zela izapidetu beharrezko legezko bermeekin, eta, beraz, berrikusi egin behar dela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

Berrikus dezazula kexagileari ibilgailuak aparkatzearekin loturiko trafikoko arau-hauste batengatik ezarritako zehapena, arestian aipaturiko gogoetetan adierazitako parametroen arabera.

